

BALDINTZA ERREALETIK ➡ IRREALERA

Zuri loterian miloi bat **erortzen bazaizu**, **zerbait emango didazu?**.

Zuri loterian miloi bat **ERORIKO BALITZAIZU**, zerbait **emango ZENIDAKE?**.

Mugikorra **hausten badizut**, ez **didazu** gehiago aurpegira **begiratuko**.

Mugikorra _____, gehiago aurpegira ez _____.

Ezetz **esaten badidate**, ez **diet** berriro **eskatuko**.

Ezetz _____, berriro ez _____.

Txakurak **hurbiltzen bazaizkit**, garrasia **botako diet**.

Txakurak _____, garrasia _____.

Erregutu diedan horretan **laguntzen ez badidate**, ez **dizkiet** eskerrak **emango**.

Erregutu diedan horretan _____, eskerrak ez _____.

Aitonari musu bat **ematen badiozu**, oso pozik **jarriko duzu**.

Aitonari musu bat _____, oso pozik _____.

Garaiz **iristen bazara**, nik **eramango zaitut**.

Garaiz _____, nik _____.

Maite banauzu, zergatik ez **didazu** ezer **esaten?**.

_____, zergatik ez _____ ezer?.

Oporretan **eramaten bazaituztegu**, pozik **geratuko zarete**.

Oporretan _____, pozik _____.

Seme-alabei hori guztia **erosten badiezu**, gaizki **ohituko dituzu**.

Seme-alabei hori guztia _____, gaizki _____.